

Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren Adierazlea (Oinarria: 2021)  
2024ko otsaila. Behin-behineko datuak.

## Zerbitzuen Sektoreko negozio-zifra % 11,8 hazi zen otsailean urte arteko balioan eta % 1,4 aurreko hilarekin alderatuta

2024ko apirilaren 18a

*Merkataritzak* % 13,3ko hazkuntza izan du negozio-zifran, urte arteko tasan

### NEGOZIO-ZIFRA

**Guztira.** 2024ko otsailean, Merkatuko Zerbitzuen Sektoreko negozio-zifra % 11,8 igo da Nafarroan, termino arruntetan, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

**Sektoreka, urte arteko bilakaera.** Bi talde handien artean, *Merkataritza* % 13,3 igo da, eta *Bestelako zerbitzuak* % 7,4. Azken talde horren barruan, negozio-zifrak gora egin du azpitalde guztietan: *Informazioa eta komunikazioak* (% 9,1), *Ostalaritza* (% 6,2), *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* (% 4,9), *Garraioa eta biltegiatzea* (% 4,0) eta *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* (% 3,7).

**Sektoreka, hileko bilakaera.** Negozio-zifra % 1,4 igo da aurreko hilaren aldean. Bi talde handien artean, *Merkataritza* % 1,3 hazi da eta *Bestelako zerbitzuak* % 1,9. Azken talde horren barruan gora egin dute *Ostalaritzak* (% 4,6), *Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak* (% 4,5) eta *Garraioak eta biltegiatzeak* (% 4,3), eta behera egin dute, aldiz, *Informazio eta komunikazioek* (- % 0,7) eta *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* (- % 3,9).

**Espainia.** Zerbitzuen sektorearen urteko tasa % 5,4koa da.



### 1. TAULA


Negozio-zifraren indizea: orokorra eta sektoreka. Jatorrizko seriea. 2024ko otsaila

	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Tasa (%)			Indizea	Tasa (%)		
		Hilekoa	Urtekoa	Batezbestekoa, urte hasieratik		Hilekoa	Urtekoa	Batezbestekoa, urte hasieratik
1. Merkataritza	129,4	1,3	13,3	10,0	112,7	-2,3	3,9	2,4
2. Bestelako zerbitzuak	106,3	1,9	7,4	7,6	114,5	0,5	8,2	7,6
2.1 Garraioa eta biltegiatzea	113,7	4,3	4,0	2,3	120,3	2,5	6,0	4,0
2.2 Ostalaritza	115,0	4,6	6,2	4,1	120,7	4,0	11,8	9,9
2.3 Informazioa eta komunikazioak	88,1	-0,7	9,1	8,2	108,3	-5,2	6,9	7,3
2.4 Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	94,8	-3,9	4,9	16,0	111,1	3,3	9,8	10,0
2.5 Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	106,3	4,5	3,7	4,9	130,5	-1,7	9,2	9,7
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>122,9</b>	<b>1,4</b>	<b>11,8</b>	<b>9,4</b>	<b>113,4</b>	<b>-1,3</b>	<b>5,4</b>	<b>4,1</b>

Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuak oinarri hartuta.  
 Behin-behineko datuak

### 1. GRAFIKOA

Zerbitzuen sektoreko jardueraren urte arteko aldakuntza



Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuak oinarri hartuta.



## OKUPAZIOA

**Guztira eta sektoreka.** Zerbitzuen sektoreko enpleguak urte arteko % 1,0eko igoera izan du otsailean. Jarduera-adarren arabera, Nafarroan enplegua % 1,8 igo da *Merkataritzan* eta % 0,5 *Bestelako zerbitzuetan*.

**Espainia.** Zerbitzuen Sektoreko enplegua % 2,0 igo da otsailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

## 2. TAULA

Okupazio-indizea: orokorra eta sektoreka. 2024ko otsaila

	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Tasa (%)			Indizea	Tasa (%)		
Hilekoa		Urtekoa	Batezbestekoa, urte hasieratik	Hilekoa		Urtekoa	Batezbestekoa, urte hasieratik	
1. Merkataritza	104,0	0,3	1,8	1,3	103,8	-0,2	2,0	1,9
2. Bestelako zerbitzuak	102,4	-1,1	0,5	1,1	105,1	0,1	2,1	2,2
2.1 Garraioa eta biltegiatzea	105,2	0,1	-1,0	-0,9	106,4	-0,2	2,3	2,5
2.2 Ostalaritza	103,1	-3,2	-3,2	-1,1	105,4	1,6	2,4	2,1
2.3 Informazioa eta komunikazioak	105,2	0,0	8,4	8,3	111,2	0,1	3,1	3,4
2.4 Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	110,7	0,6	7,8	8,1	106,0	0,1	1,8	2,0
2.5 Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	91,8	-2,0	-2,4	-2,4	102,3	-1,1	1,8	2,2
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>103,0</b>	<b>-0,6</b>	<b>1,0</b>	<b>1,2</b>	<b>104,6</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>

Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuak oinarri hartuta.  
Behin-behineko datuak





## OHAR METODOLOGIKOA

Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren Adierazleek (ZSJA) merkatuko zerbitzu ez-finantzarioetako enpresen jardueraren epe laburreko bilakaera neurtzen dute, bi aldagairen bidez: negozio-zifra eta langile okupatuak. Negozio-zifrak zerbitzuak emateagatik eta ondasunak saltzeagatik enpresak fakturatutako zenbatekoak hartzen ditu. Langile okupatuen artean sartzen dira bai soldatapekoak, bai ordaindu gabeak.

Datu horiek lortzeko, Espainia osoan sektore horretan diharduten 27.500 enpresa baino gehiago hilero ikertzen dituen etengabeko inkesta bat egiten da. Emaitzak indize moduan aurkezten dira, 2021eko oinarri-urtearekiko aldaketak neurtzeko helburuarekin.

INEk ZSJAREN datuak eguneratu ditu gaur 2021eko oinarri berrian argitaratzean. Horrela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako enpresa-estatistikei buruzko 2019/2152 (EB) Erregelamenduaren arabera zehaztapen teknikoak eta modalitateak ezartzen dituen Batzordearen 2020/1197 (EB) Betearazpen Erregelamendua betetzen da.

Estatistikako Institutu Nazionalak egindako estatistika-eragiketa da, eta ezaugarri nagusi hauek ditu:

- **Inkesta mota:** jarraitua; hilero egiten da.
- **Oinarrizko aldia:** 2021.
- **Biztanleria-esparrua:** Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako (JESN-09) G (Merkataritza), H (Garraioa eta Biltegiatzea), I (Ostalaritza), J (Informazioa eta Komunikazioak), M (Jarduera Profesional, Zientifiko eta Teknikoak) eta N (Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak) ataletan jarduera nagusia deskribatzen deneko enpresak.
- **Esparru geografikoa:** lurralde nazional osoa, Ceuta eta Melilla izan ezik, horientzat JESN-09aren 47. dibisioan bakarrik jasotzen baita (txikizkako merkataritza).
- **Laginketa mota:** ausazko laginketa estratifikatua.
- **Biltzeko metodoa:** informatzaileak galdetegia betetzea, bide hauetakoren bat erabiliz: Internet (IRIA sistema), posta elektronikoa, faxa, telefonoa edo posta.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean kontsultatu daiteke adierazle honetarako metodologia.



## INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[Zerbitzuen sektoreko jardueraren adierazlea. 2024ko otsaila.](#)



## CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00